

Ezaugarri teknikoak

- Internetera konektatua dagoen edozein ordenagailutatik oso erraz kudea daitezke, webguneak programatzen jakin gabe.
- Multimedia-baliabide dira: hainbat eduki-mota onartzen dituzte.
- Weblog bateko elementu garrantzitsuenetakoak sareko beste webguneekin sortzen diren estekak dira, batez ere beste blogekin sortzen diren loturak.
- Gehitzen den sarrera bakoitzak bere etiketak eta kategoriak izan ditzake, gero horien bilaketa eta antolaketa errazteko balioko duena.
- Blogrolla: beste blogen estekak dituen zerrenda da.
- Trackback sistemari esker, blogosferan dauden antzeko albisteen arteko loturak sortzen dira. Horrela, blog guztiak elkarren artean lotu eta komunitate bat sortzen da. Blogak egiteko software guztiak ez dute aukera hori, baina askok bai.
- Ping: blogak egiteko programek [Technorati](#) bezalako bilatzaileei gure blogaren eguneraketan berri ematen diete. Aplikazio hori programek berez dakarten zerbitzua da.

Ezaugarri orokorrak

- Kronologikoak dira eta azken idatzitako artikulua lehen lekuan agertuko da blogean.
- Irekiak direnez, sarrera edo post bakoitzari iruzkinak egiteko aukera gehitzen zaio. Blogaren irakurleek iruzkinak eta iritziak plazara ditzakete eta blogeko edukiaren inguruan eztabaida edo beste edozein informazio sortzen dira.
- Informazioa erabiltzaile guztien eskura dago.